

## Izenburua: Interneten aurki dezakegun informazioa



### JARDUERAK

1. Diabetesa duten pertsonentzat oso garrantzitsua da hurbilen duten Diabetiko Elkartearen helbidea ezagutzea. Bertan, gaixotasun berbera duten beste pertsona batzuk ezagutuko ditu eta haien laguntzarekin gauza berriak ikasi ahal izango ditu, esperientziak partekatu ahal izango dituzte, etab.

Bila ezazu Interneten zure eskolatik hurbilen dagoen Diabetiko Elkartearen helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa, etab.

2. Dagoeneko jakin badakizu, diabetesa duten pertsonak, hala nola zure ikaskideak, intsulina injektatu behar izaten dutela.

Bila itzazu galdera hauen erantzunak. Kontuan izan Interneten dagoen informazioa batzuetan ez dela zuzena izaten.

- Zein dira diabetes-mota garrantzitsuenak?
- Zer esan dezakezu mota horietako bakoitzari buruz?
- Zein urtetan aurkitu zuten intsulina?
- Nork aurkitu zuten?
- Zein egunetan izaten da Diabetesaren Nazioarteko Eguna?